

Antxiñako fotografixia

Erramu domekako meza ondoren San Pedron

Aste Santuari hasieria emunaz, **Erramu Domekia** dago eliza katolikuaren liturgixan. Jesukristoren bizitzako azken egunetako pasadizuak gogoraketan dira astian zihar: bere pasiñua, heriotzia eta piztueria. Domeka bixetakuak gertaera pozgarriak dira, aste barrukuak, berriz, lazgarriak gehixenak. Erramu Domekan Jesukristo Jerusalem sartzu zala dixo ebanjelixuak, asto baten gainian eta bere jarraitzaillien biba eta kantuen artian. Aldeko zittuan lagunok **olibo-adarrak** eukain eskuetan. Hortik dator, nunbait, egun horretako elizkuntetan palmonduak eta **erramuak bedeinkaketako ohittura zaharra**.



Oñatiko parrokiako meza nagusixan bedeinkaziñuaren ondoren, prozosiñua egitten zan eliza inguruan. Baiña auzuetako parrokitetan, Araotz nahiz Urruxolan, eta **ermitta batzuetako mezetan be bedeinkaketan ziran erramuak**. Gaurko fotografixa honetan agerketan xaku Torreazoko San Pedro ermittan halako egun batian parte hartutako neska eta neskatilla batzuk. **Torreazoko San Pedro ermitta** Oñatiko zaharrenetakua dala esaten da herriko ahozko tradiziñuan. Ba, hantxe, XX. gizaldixaren lehenengo hamarkadetan eta geruago be bai, **domekero emuten euen mezia** hona etorri barri ziran **agustiño laterandarrak**: goiz samar, zazpi t'erdittan, ondoren abadiak beste meza bat emun bihar ebelako aldameneko Zañartu auzuan. Baraua ezin zan hautsi orduan.

Hona, ba, argazkiko neska eta neskatilla horrein inguruan batu ahal izan dogun informaziño apurra. Saiatu, saiatu egin gara, benetan diotsuegu, baiña, batari eta bestiari galdetu arren, oraingoz eztittugu guk gura besteko argibidiak eskuratu. Guztiak ezpadira be, neska gehixentsuenak **Garibai auzokokuak** diralakuan gagoz. Dana dala, fotografixia ikusi eta gero, beste oñatiar batzuek be hutsunak beteten eta argiketan lagunduko doskuela pentsaitten dogu. Goittik behera eta ezkerretik eskumara honeitxek dittuzue orain arte ezagututakuak:

Goixeneko illaran: bigarrena, **Bittoriana Egaña**, Dolaetxeko alabia, gerora Errotabarrira ezkondu zana; laugarrena, **Paula Egaña**, Dolaetxekua, San Antue kalera ezkondua; bosgarrena, **Hipolita Egaña**, Garibaigoittikua, Eskoriatzara ezkondua; eta zortzigarrena, ertzian, **Nikolasa Egaña**, Dolaetxekua, Kale Zaharrera ezkondua.

Bigarren illaran: lehenengua, **Martiña Egaña**, Garibaigoittikua, San Pedroko Torrera ezkondua; seigarrena, **Joxepa Egaña**, Garibaigoittikua au be eta Mutrikura ezkondua.

Beheko illaran: erdixan bosgarrena, **Juanita Guridi** [?] Argiñenekua, Santa Marinara ezkondua.

Argazkixak atzian seillu hau dakar: **FOTOGRAFÍA AUSTRO-ALEMANA / OÑATE (Guipúzcoa)**. Lehenego mundugerran edo ondorentxuan aleman eta austriar batzuk aillegau ziran hona be. Halakoren bat ete argazkilarixa? Ezta datu horreik dakon erretratu bakarra. Ia baten batek horren gaineko barri zihatzagorik emuten doskun. Orain arte idatzitakuak eta protagonisten jantzixak nahiz orrazkerak kontuan izanda, **fotografixa 1920ko hamarkadiaren hasierakua** dala esango geuke.

J. E

Milla esker gure inbestigaziñotxo hau samurtu doskuen Elena Egaña, Dolores Egaña, Pakita Egaña, Manolo Egaña, Luxia Ugarte, Nieves Egaña, Joxe Luis Arregi eta Joxe Mari Arregiri.